

38/2020 Dekretuaren interpretazio-irizpideei buruzko "Ohiko galderen erantzunak" dokumentua eguneratzea, ostalaritza-zerbitzuei dagokienez

Zer dio Dekretuak zehazki?

"Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera ezartzen da, hoteletako eta ostatu hartuta dauden bezeroen zerbitzurako beste ostatu batzuetako jantokietan izan ezik. Etxez etxeko otorduak prestatu eta zerbitzatu ahal izango dira, edo bertan jasotzeko alde zurretik hitzordua eskatuta, 21:00ak arte.

Itxieratik salbuetsita geratzen dira gasolindegietako eta zerbitzuguneetako jatetxe-zerbitzuak errepidez zirkulatzen ari diren pertsonentzat, osasun-zentro eta -zerbitzuetakoak, zerbitzu sozio-sanitarioetakoak, eskola-, lan- eta unibertsitate-egoitzetako jantokiak eta izaera sozialeko jantoki-zerbitzuak.

Kafetegi-zerbitzua modu osagarrian eskaintzen duten okindegi-gozotegi moduko establezimenduek ezin izango dute zerbitzu hori eskaini, eramateko izan ezik".

Horrez gain, Dekretuaren eranskineko 3.3. puntuak *debekatu egiten du bide publikoan alkohola kontsumitzea.*

Zeintzuk dira neurri horiek hartzeko arrazoiak eta helburuak?

Planeta osoari eragiten dion pandemia global baten erdian gaude. Euskadin osasun-larrialdian gaude. Estatu espainiarrean Alarma Estatua izendatuta dago. Euskadin, neurri horiek hartzean, birusaren transmisio-maila 5. mailakoa da: 5. mailako agertokia, Transmisio Oso Altua.

Birusa komunitatean transmititzeko arrisku handieneko guneetako bat interakzio soziala eta pertsona-taldeak dira, batez ere erlaxazio-testuinguruetan, maskararik erabili gabe eta ohiko bizikideen taldetik kanpo ematen badira. Inguruabar horiek errepikatu egiten dira ostalaritza-zerbitzuen testuinguruan.

Hala ere, ostalaritzak ez du birusa kutsatzen. Horren eragilea da pertsona askok ostalaritza-establezimenduetan gauzatzen duten interakzio sozial jarraitu, erlaxatu, distantzia eta maskararik gabeko portaera pertsonala, aste askoren ondoren iraun duena eta zuzendu ez dena.

Oreka bilatu behar da osasun publikoaren ondasun osoaren eta ahalik eta kalte txikienaren artean. Hartutako neurrien helburua da osasun publikoa zaintzea, erabateko konfinamendua eta horren ondorio sozioekonomikoak saihestea, eta birusa transmititzeko foku nagusiak moztea: mugikortasuna, interakzio soziala eta pertsonak elkartzea erlaxazio, hurbiltasun eta maskararik gabeko testuinguruetan.

Joan naiteke ostalaritza-establezimenduren batera?

Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduetako eta zerbitzuetako pertsonen zerbitzurako erabateko itxiera zehazten da, hoteletako jantokiak eta ostatu hartutako bezeroen zerbitzurako beste ostatu batzuk izan ezik. 21:00ak arte bakarrik prestatu eta zerbitzatu ahal izango dira otorduak etxean bertan edo aurrez hitzordua eskatuta.

Jatetxeek edo tabernek saldu al dezakete edaria edo alkohola etxean edo jasotzeko?

Edozein edari edo alkohol mota saldu ahal izango dute eramateko, janari-eskaera baten parte bada eta alde zurretik hitzordua eskatuta. Ezin izango dute soilik edari alkoholodunik saldu eramateko. Gogorarazten da Dekretuak berriaz debekatzen duela alkohola bide publikoan kontsumitzea.

Eramateko kafeak edo alkoholik gabeko edariak saldu ahal izango dituzte, nahiz eta janari-eskaera baten parte ez izan. Nolanahi ere, gogorarazten da bide publikoan kontsumitzea ez dela komeni.

Zer edari eskain ditzakete gozotegi-okindegiko establezimenduek, kafetegi-zerbitzu osagarria badute?

Establezimendu horiek kafea edo alkoholik gabeko edariak zerbitzatu ditzakete, eramateko bada. Nolanahi ere, gogorarazten da bide publikoan kontsumitzea ez dela komeni.

Ezin izango dute edari alkoholodunik saldu eramateko. Gogorarazten da Dekretuak berriaz debekatzen duela alkohola bide publikoan kontsumitzea.

Establezimendu horien barruan ezin da ez edaririk ez janaririk kontsumitu, ezta okindegiko edo gozotegiko produkturik ere.